

Jarduerak: Sustraira

Guztiaren jatorrira joatea, oraindik ezagutzen ez dugunera. Landutako edukiei buruzko informazioa bilatzera, prozesatzera eta kontrastatzera animatzea.



NKYINKYIM Adinkra Ikurra:
«Twist» Ekimenaren,
dinamismoaren eta
aldakortasunaren ikurra.

1. Jarduera:



Izenburua: Afrika bere literaturaren bidez, bere erreferenteen bidez: Nor izan zen Chinua Achebe?

Kategoria: SUSTRAIRA

Aurkezpena:

Ehiztariak (potentzia kolonizatzaileek) kontatu digu Afrika, eta ez lehoiak (kontinente afrikarrak). Horregatik, kontinente zahar, mitiko eta exotiko gisa irudikatu da, irudi okerrak sortuz eta, oro har, hari buruzko ezjakintasun handia sortuz.

Hala ere, azken hamarkadetan, historialari afrikarrek egindako ikerketa **orain arte Mendebaldean kontuan hartu ez ziren kontinenteari buruzko ezagutzak eskaintzen ari da.**

Helburu horrekin, Chinua Achebe Nigeriako intelektualaren figurara hurbilduko gara; esaldi ospetsu hau harena da: ***“Lehoiak ere behar du bere historia kontatuko duenik. Ez ehiztariak soilik”.***

Ikasleek eleberrigile, poeta, saiakera-gile eta eruditu nigeriar konprometitu horren bizitza eta lana ikertuko dituzte; askotan, **afrikar eleberriaren aita** dela esan izan da. Afrikako estatu berriak sortzeko eta beren tradizio propioak berreskuratuzko une erabakigarrian agertu zen, hazkunde poli-

tiko indartsuko eta aparteko kultura-intentsitateko garai batean.

Helburu didaktikoak:

1. Afrikar kulturari buruz ditugun estereotipoak zalantzan jartzen eta hausten dituzten afrikar erreferenteak ezagutu; irakaskuntzaren bidez, gure eguneroko kulturaren eta gure gorputz eta adimenetan sartu izan dira estereotipo horiek.
2. Informazioa ulertu (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta laburbildu), buruz ikasi eta adierazi (deskribatu, definitu, laburtu, azaldu...) eta baloratu (argudiatu, justifikatu).
3. Ideiak sortu, aukeratu eta adierazi.
4. Lortutako emaitzen berri eman.
5. Laguntza eta lankidetzaren aldean ikasteko zereginetan.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

6. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
7. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
8. Elkarbizitzarako gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Euskara eta gaztelania eta literatura** (Komunikazio linguistikoa eta literarioa).
3. **Atzerriko lehen hizkuntza. Ingelesa** (Komunikazio linguistikoa eta literarioa).
4. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

1. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Ehiztariak (potentzia kolonizatzaileek) kontaktu izan digute Afrika, eta ez lehoiak (Afrikako kontinenteak).
- “Historia bakarraren” arriskuaz jabetzea: *“gauzen historia bakar bat kontatzeak, ikuspuntu bakar batekin, gizarte baten edo pertsonen ideia bakar batekin, errealitatea islatzen ez duten estereotipoak sortzera garamatza, eta gizarte-talde batzuen bazterketa edo marjinazioa ere eragin dezakete horiek”* (Chimamanda Adichie, idazle nigeriarra).
- Duela gutxi baino ez dugu ezagutu Afrikaren iragana protagonistek kontatuta. **“Lehoiak ere behar du bere historia kontatuko duenik. Ez ehiztariak soilik”.**

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - “abisua”:

- Azken helburua da gu pertsonaiaren motibazioak eta kezkak ulertzeko gai izatea.
- Biografia on batek laburra eta sintetikoa izan behar du. Wikipediatik kopiatutako zerbait baino hobe da biografia laburra eta modu pertsonalean egina.

Garapena:

Biografia bat idazten dugunean, pertsona jakin batek denbora eta

testuinguru historiko jakin batean gizartean izan zuen bizitza eta egin zituen ekarpenak aztertzen ditugu. Biografiak denboraren muga zeharkatzen duen bizitza baten testigantza gisa balio du, eta, historia pertsonalen bidez, garai bat pentsatu, ikusi eta ulertzeko moduz jabetzeko aukera ematen digu. Horretarako, ikasleek **“Chinua Acheberen bizitzaren historia”** egin beharko dute, eta, horretan, haren bizitzako eta obrako gertaera garrantzitsuenak kontatuko dituzte.

Hasteko, irakasleak jardueraren helburuak, garapena eta egin beharreko lanak aurkeztuko dizkie ikasleei.

Ondoren, lauzpabost ikasleko taldeak osatuko dira. Taldeak irakasleek komenigarritzat jotzen dituzten irizpideen arabera eratu daitezke, edo ikasleei horien osaketa erabakitzen utzi. Taldeak osatu ondoren, pertsona bakoitzak egin beharreko lanak esleituko dira; honako hauek:

1. ZEREGINA: Informazio-iturria aukeratu: urrats hau oso erraza da, beherrago emango dizkizuegun estekekin lan egingo baitugu.

Informazioa prozesatu: informazioa prozesatzeko eta antolatze tekniken bidez (azpimarraketa, sintesia, mapa kontzeptuala eta abar), ideia nagusiak identifikatu, laburtu eta idatzi.

Kontuan hartu beharreko puntu batzuk:

- Pertsonaia denboran eta espazioan kokatu: jaiotza- eta heriotza-datak, bizi izan zen mendea eta zein garai historikotakoa den jakin.

Zein herrialdeetan bizi izan zen ere jakin behar dugu. Jakina, mapen laguntza izan dezakezu.

- Zehaztu zergatik den garrantzitsu pertsonaia: pertsonaia ulertzeko, bere garaian kokatu behar duzu, bere ekintzak aztertu eta bere motibazioez galdetu zeure buruari (idea berririk ekarri al zion munduari? Lan handiren bat egin zuen? Aitorpenik izan zuen bere garaian?).
- Irudiak bilatu: haren bizitzari eta nortasunari buruz asko jakin dezakegu, haren irudiak eta bideoak aztertuz gero. Kasu honetan, Internetek informazio-emari handia eskaintzen digu.

Modu kritikoan baloratu pertsonaia: kontua iruzkin subjektibo bat egitea da, pertsonaia historikoari buruzko gure ondorioak eta iritzi pertsonalak azaltzeko.

2. ZEREGINA: Informazioa bildu eta aztertu ondoren, lanean hasteko eta "Bizitzaren historia" osatzeko lanean hasteko garaia da. Era askotara egin dezakegu kontaketa: pertsonaiaren bizitza kronologikoki narratu dezakegu edo une horretan aztertzen ari garen gaiarekin lotuta interesgarrienak diren bizitzako eta laneko alderdiak aukeratu ditzakegu.

Azken produktu gisa, talde bakoitzak ekoizpen kolektibo bat entregatu beharko du, eta, horretan, "Chinua Acheberen bizitzaren historia" islatuko da.

Irakasleei eta ikasleei beren lana azaltzeko metodo plastiko eta bisuala

aukeratzen utziko zaie. Adibidez, bideo bat edo horma-irudi sortzaile bat egin daiteke edukiak modu sortzaile eta erakargarrian erakustea ahalbidetzen duten hainbat teknika erabiliz (lap-book-ak, collagea eta abar), taldeko jardueretarako funtzionalak direnak, elkarlaneko dinamika erabiltzen dutenak, halako moldez non ikasle bakoitzak ideien eta lanen ekarpena egin ahal izango duen hura sortzeko. Adibidez, parte-hartzaileraren bat marrazten ona baldin bada, irudiz arduratu daiteke, eta beste bat informazioa bilatzen eta hura idazten ona baldin bada, lan hori egiteko eska dakiok.

3. ZEREGINA: Azken produktuaren aurkezpena: talde bakoitzak bere azken produktua aurkeztuko du ikasgelan edo ikasgelatik kanpoko publiko baten aurrean, hala nola beste maila bateko ikasleak, familiak eta abar.

Aurreikusitako iraupena:

- **0. zeregina - Aurkezpena, taldeen eraketa eta zereginen banaketa:** ordubete (saio 1).
- **1. zeregina:** 2 ordu (2 saio).
- **2. zeregina:** 2 ordu (2 saio). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete.
- **3. zeregina:** ordubete (saio 1). Astebeteko epea eman daiteke 2. zereginaren eta 3.aren artean.

*OHARRA: *Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

CHINUA ACHEBERI BURUZ:

- <https://www.casafrika.es/es/persona/chinua-achebe>
- https://es.wikipedia.org/wiki/Chinua_Achebe
- <https://personajeshistoricos.com/c-es-critores/chinua-achebe/>
- <https://www.potopoto.es/afroreferentes/escritores-afro/chinua-achebe/>

NOLA EGIN BIOGRAFIA BAT?

- <https://www.youtube.com/watch?v=-gr6OQ6ZrE0A>
- <https://www.youtube.com/watch?v=V-088fohZqrl>

Biografia bat erakusteko inspirazio iturri izan daitezkeen modu sortzaileak:

LAPBOOK TEKNIKA:

- <https://www.unir.net/educacion/revisita/lapbooks-construyendo-el-aprendizaje-con-las-manos/>
- <https://es.paperblog.com/lap-books-para-secundaria-551905/>

- <https://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/webs-plantillas-lap-books/>

INFOGRAFIA (KONTZEPTUA, ZATIAK, EZAUGARRIAK, MOTAK):

- <https://www.youtube.com/watch?v=mxRcYGXWEm8>
- <https://youtu.be/V088fohZqrl>
- <https://www.facebook.com/librode-cuentosehistoriaparatodos/photos/infograf%C3%ADa-de-la-vida-de-frida-kahlo-/164073771984372/>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. Jarduera:



Izenburua: Gure jatorri afrikarra

Kategoria: SUSTRAIRA

Aurkezpena:

- Jarduera honen eta 2. unitateko testuaren bidez, gizateriaren lehen zibilizazioen jatorria ezagutu nahi da, Afrikan sortutakoak baitira, baita ikasleek gure planetan bizi diren errealitate desberdinak elkarrekin lotuta daudela uler dezaten sustatu ere.

Helburu didaktikoak:

1. Gizateriaren jatorri afrikarrak gogoratu.
2. *Homo Sapiensak*, gero beste kontinente batzuetara zabaldu aurretik, aurrera egin zuen Afrikako eskualde nagusiak ezagutu.
3. Antzinako historiaren ikuspegi ez eurozentrikoa eman, Antzinako Egiptoren aurreko zibilizazio afrikar handiak ezagutzuz.
4. Antzinako Egiptoko kulturak eta historiak Grezia Klasikoari eta, horrekin batera, mendebaldeko kulturari egindako ekarpenak ezagutu.
5. Ezagutza horiek zabaltzen lagundu duten historialari afrikarrak ezagutu: Cheikh Anta Diop.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
2. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa (Gaitasun artistikoa).
3. Balio etikoak (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrika da gizateriaren jatorria, eta han sortu ziren lehen zibilizazio handiak.
- Egiptoko zibilizazioaren belztasuna.
- Historialari afrikarrak: Cheikh Anta Diop.
- Historian zehar, kultura guztiak elkarri lotu zaizkio eta elkarren eragina izan dute.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Kulturak elkarrekin lotuta daude.
- Historia ez da sekuentzia lineala.

Garapena:

Gela 5 taldetan banatuko da. Talde bakoitzak proposatutako 5 gaietako bat aukeratuko du, eta, taldean, auke

ratutako gaia ikertu, prestatu eta gainerako taldeei azalduko die. Talde bakoitzak horma-irudi bat egingo du, ahozko azalpenaren oinarri gisa erabiltzeko. Bost dira proposatutako gaiak:

1. Gizateriaren jatorria. Olduwaiko arroila Tanzanian.
2. Zerk bultzatu zituen lehen *Homo Sapiensak* Afrikatik irten eta planetako beste eskualde batzuetara hedatzera? Zer bide jarraitu zituzten lehen gizakiek Afrikatik irteteen?
3. Gizateriaren lehen zibilizazioak Afrikan sortu ziren: Kerma.
4. Antzinako Egiptoren jatorri afrikarra.
5. Nor izan zen Cheikh Anta Diop?

Aurreikusitako iraupena:

- **Jardueraren aurkezpena eta 5 taldeen antolaketa:** ordu erdi.
- **Horma-irudia ikertzeko eta prestatzeko lana:** 2 ordu (etxean egin beharreko lana).
- **Taldeen ahozko azalpena:** ordubete.

Ikertu beharreko gai bakoitzerako laguntza-materiala:

- **Gizateriaren jatorria. Olduwalko arroila Tanzanian.** Liburua: "La especie elegida" Juan Luis Arsuaga e Ignacio Martínez. <https://www.despertaferro-ediciones.com/2020/viviendo-entre-grandes-mamiferos-homo-erectus-olduvai/>

- **Zerk bultzatu zituen lehen homo sapiensak Afrikatik irten eta planetako beste eskualde batzuetara hedatzera? Zer bide jarraitu zituzten lehen gizakiek Afrikatik irteteen?** <https://www.elmundo.es/papel/historias/2018/12/31/5c28f16bfc6c-8399188b45b6.html>
- **Gizateriaren lehen zibilizazioak Afrikan sortu ziren: Kerma.** <https://thinkafrica.net/the-kingdom-of-kerma-2500-1500-bc/>
- **Antzinako Egiptoren jatorri afrikarra.** <https://historiadeafrica.com/el-origen-africano-de-las-civilizaciones-del-antiguo-egipto-y-del-occidente/>
- **Nor izan zen Cheikh Anta Diop?** https://elpais.com/el-pais/2018/12/27/africa_no_es_un_pais/1545945602_203712.html

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. Jarduera:



Izenburua: Baliabide naturalen ondoriozko gatazkak: Zer lotura dute nirekin?

Kategoria: SUSTRAIRA

Aurkezpena:

Baliabide naturalak gure gizartearen garapenaren oinarria dira. Elikagaien, industriaren eta energiaren kontsumoaren oinarriak dira, eta, horrenbestez, ezinbestekoak eta estrategikoak gure bizitzarako.

Afrikak baliabide natural horien munduko erreserben ehuneko handi bat dauka: nekazaritzarako beharrezkoak diren **lur** emankorrak, **mineralak** eta mundua garatzeko ezinbestekoak diren **energiak**.

Jarduera honetan, baliabide naturalek Afrikako gatazka sozial eta ingurumen-gatazka askoren hasieran eta iraupenean duten garrantzia ikertuko dute ikasleek. Horrez gain, kontsumitzaileok sistema konplexu horretan dugun zeregina ezagutuko dute.

Helburu didaktikoak:

1. Baliabide naturalak gizateriaren, orainaren eta etorkizunaren ondare komun natural gisa baloratu.

2. Baliabide naturalen garrantzi ekonomikoa baloratu eta baliabide horiek arrazionalki ustiatzeko beharra ulertu.
3. Gure kontsumo-ereduari, naturarekiko harremanari eta baliabide naturalen erabilera jasangarriari buruzko jarrera kritikoa garatu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Biologia eta Geologia** (Gaitasun zientifikoa).
3. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
4. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrika aberastasun natural handiko kontinentea da.
- Afrikako baliabideak ustiatzeko eredia, herrialde kolonizatzaileek gauzatu, Afrikako garapen-ara-zaoren eragile nagusietako bat da.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Afrika kontinente pobre gisa aurkezten duen irudia hautsi eta atzean utzi beharra dago.
- Jarduera baliatu, ikasleengan jakin-minarekin, interesarekin, zehaztasunarekin, sormenarekin eta pentsamendu kritikorekin zerikusia duten jarrerak sustatzeko.

Garapena:

1. ZEREGINA: Hasteko, Irakasleak jardueraren helburuak eta garapena aurkeztuko dizkie ikasleei, baita izango dituzten zereginak ere.

Irakasleak behatzailearen eta gidariaren rola hartuko du, jardueran sor daitezkeen zalantzak eta arazoak konpontzeko.

Ondoren, 5 ikasle talde osatuko dira. Taldeak irakasleen ustez egokiak diren irizpideen arabera eratu daitezke.

Talde bakoitzari Afrikako baliabide natural hauetako bana esleituko zaio:

- 1. TALDEA:** Petrolioa
- 2. TALDEA:** Koltana
- 3. TALDEA:** Fosfatoak
- 4. TALDEA:** Urrea
- 5. TALDEA:** Palma-olioa

2. ZEREGINA: Ondoren, talde bakoitzak esleitu zaion baliabide naturalari buruzko informazioa bilatu beharko du.

Internet bidez dokumentatu daitezke (artikuluak, txostenak, blogak, sare

sozialak eta abar). Garrantzi handikoa da ikasleei adieraztea garrantzitsua dela **informazioa iturri independente batzuetan kontrastatzea.**

Ikerketa horren ondorioz, ikasleek 1. eranskina entregatu beharko dute, eskatutako informazioarekin.

3. ZEREGINA: Ondoren, esleitu zaien baliabide naturalari buruz lortutako informazioa azaldu beharko dute ikasleek, grafikoki. Talde bakoitzak informazioa azaltzeko gidoi-proposamen bat honako hau izan liteke:

1. Baliabide naturalaren deskribapen laburra.
2. Baliabide naturala kokatzen den Afrikako herrialdea.
3. Ustiatzeak sortzen dituen gatazken deskribapen laburra.
4. Baliabide natural horretatik lortzen den kontsumo- edo erabilera-ondasuna.

Informazioarekin batera, ikasleek baliabide naturalaren irudiak, hura non dagoen jakiteko mapak eta abar bilatuko dituzte.

Azalpenerako, hainbat tresna erabil daitezke, hala nola infografiak, aurkezpenak, horma-irudia eta abar.

4. ZEREGINA: Azkenik, talde bakoitzak bere azalpena partekatuko du gelan. Gure lanak hezkuntza-komunitatea sensibilizatzeko balio izatea nahi badugu, ikastetxeko espazio komunitatean edo ikastetxeko webguneen eta sare sozialen bidez partekatu dezakegu.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **2. zeregina:** ordubete (saio 1). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete.
- **3. zeregina:** ordubete (saio 1). Astebeteko epea eman daiteke 3. zereginaren eta 4.aren artean.
- **4. zeregina:** aldakorra, egindako aukeraren arabera.

*OHARRA: *Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-eritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

IRITZI ARTIKULUAK:

- Afrikaren espoliazioa: https://elpais.com/elpais/2017/05/25/africa_no_es_un_pais/1495706053_437760.html

BALIABIDE DIDAKTIKOAK:

- “Baliabide naturalen ondoriozko gatazkak: Zer lotura dute nirekin?” kanpainako gida <https://www.fundacionalbihar.org/wp-content/uploads/GU%C3%8DA-CXR.pdf> — <http://www.conflictosporrecursos.es/files/guia.pdf>
- “Baliabide naturalen ondoriozko gatazkak: Zer lotura dute nirekin?” kanpainako koaderno

https://www.fundacionalbihar.org/wp-content/uploads/compressed_1117339008.pdf

— <http://www.conflictosporrecursos.es/files/guia.pdf>

- Gatazkak eta horiek sorrarazten dituzten eta horiei iraunarazten dieten baliabide naturalak non dauden erakutsiko dizun mapa interaktiboa <http://www.conflictosporrecursos.es/mapApp>
- Afrikako baliabide naturalen eta horien paisaien lokalizazio geografikoa <https://www.personales.ulpgc.es/gdelgado.dgeo/Africa/content/DEA-RN-Ficha-T2.pdf>

ERAKUSKETA SORTZEKO TRESNAK:

- 6 increíbles herramientas gráficas para el aula: https://www.canva.com/es_mx/aprende/recursos-canva-para-tus-clases/
- Crear contenidos interactivos: <https://genial.ly/es/para-educacion/>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko go-goeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. ERANSKINA: Baliabide naturalen ondoriozko gatazkak.

Zer lotura dute nirekin?

1. Baliabide naturalaren izena:
2. Zer da? Deskribapena:
 - Baliabide minerala, begetala edo animalia-baliabidea da?
 - Baliabide berriztagarria edo ez berriztagarria da?
3. Afrikako zein herrialdetan lokalizatuta dago?
4. Nola lortzen da? Nola erauzten da?
5. Zer motatako inpaktuak sortzen dira Afrikan baliabide natural horren erauzketaren ondorioz? Gatazka sozial eta ingurumen-gatazkak, hala nola:
 - Gatazka armatuak.
 - Lurralde-gatazkak.
 - Ingurumen-gatazkak: kutsadura, osasuna hondatzea, eta abar.
6. Zer erabilera ematen zaio baliabide natural horri?
7. Baliabide natural horretatik zuk kontsumitu edo erabili ohi duzun ondasunen bat eskuratzen da?
8. Informazioa lortzeko erabili dituzuen webguneetako estekak gehitu.

1. Jarduera:



Izenburua: Aktibistak LGBTI kolektiboaren eskubideen aldeko borrokan Afrikan

Kategoria: SUSTRAIRA

Aurkezpena:

Azken hamarkadetan, LGBTI pertsonen eskubideen aldeko aldarrikapen-mugimenduak indarra hartu du Afrikan. Afrikako herrialde guztietan, LGBTI erakundeak eta pertsonak homofobiaren eta transfobiaren aurkako erresistentzia sendoa gauzatzen ari dira, salaketaren, protestaren eta diskriminatuak ez izateko beren eskubideak aldarrikatzearen bidez, bai eta LGBTI pertsonen diskriminaziorik ezaren aurkako borrokaren inguruan sentsibilizatzeko hezkuntza-kanpainak ere.

Jarduera honetan, Afrikako LGBTI ekintzaileak ezagutuko ditugu, berdintasun eta aintzatespen sozial erabatekoa lortzeko gainditu gabeko erronkei aurre egiteko borrokatzen direnak.

Helburu didaktikoak:

1. Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kolektiboek buruzko informazioa bildu (LGBT kolektiboa) eta haien aldarrikapenak laburtu.
2. Afrikako LGBT kolektiboaren egoe-

rari buruz hausnartu.

3. Orientazio afektibo-sexualak onartu eta errespetatu, eta eguneroko bizitzan (akademikoa, etxekoa, lanekoa, kulturala eta abar) defendatu pertsonen hautatzen duten orientazioa erabiltzeko duten eskubidea, gutxietsi eta diskriminatzen dituzten adierazpenak baztertu eta haien aurka erabilitako indarkeriaren aurka jarrera aktiboa izan.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrikan eskubideak aldarrikatzeko lehen mugimenduak oso antzinakoak dira, eta historia osoan etengabeak izan dira. Horietako batzuk ikusiko ditugu.
- Historikoki, Afrikan "kolektibo" deritzen eskubideak nagusitu dira

- eskubide indibidualen gainetik.
- Tradizio luze horri jarraituz, gaur egun mugimendu sozial ugari egiten ari dira gazteek gidatutako eskubideen aldeko borrokan, herri-tarren askatasun eta eskubideak zabaltzeko.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Ikasleek LGBT kolektiboaren aurkako indarkeria gutxiestea, diskriminatzea eta/edo sustatzea eta justifikatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak dituzten jarrerak identifikatzea eta aztertzea.

Garapena:

1. ZEREGINA: Hasteko, irakasleak jardueraren helburuak eta garapena aurkeztuko dizkie ikasleei, baita izango dituzten zereginak ere. Ondoren, 5 ikasle talde osatuko dira. Taldeak irakasleen ustez egokiak diren irizpideen arabera eratu daitezke.

Talde bakoitzari LGTBI aktibista haue-tako bana esleituko zaio:

- 1. TALDEA:** Kasha Jacqueline Nabagesera
- 2. TALDEA:** Grace Munene
- 3. TALDEA:** Zanele Muholi
- 4. TALDEA:** Eudy Simelane
- 5. TALDEA:** George Reginald Freeman eta/edo Dumiso Gatsha

Zerrenda hori aktibista gehiagorekin luzatu daiteke: Gigi Louisa, David Kato eta Titica: Alice Nkom.

2. ZEREGINA: Talde bakoitzak berari esleitutako pertsona aktibista iker-tuko du.

Ondoren, informazio-iturriak aukeratu-tuko dituzte. Informazio garrantzitsua prozesatu ondoren, sintetizatu eta azken produktu batean erakutsiko dute, aktibistaren izena eta argazkia eta haren biografiako datu nagusiak adierazita.

Irakasleek eta ikasleek lanak aurkezteko metodoa aukeratuko dute. Adibidez, horma-irudi sortzailea egin hainbat teknika erabiliz (lapbook-ak, collagea eta abar), edukiak sormenez eta lankidetzaz azaltzeko.

3. ZEREGINA: Azken produktuaren aurkezpena: talde bakoitzak bere lana aurkeztuko du klasean edo ikas-gelatik kanpoko publikoaren aurrean, hala nola beste maila bateko ikasleak, familiak eta abar.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** 2 ordu (2 saio).
- **2. zeregina:** 2 ordu (2 saio). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete.
- **3. zeregina:** ordubete (saio 1). Astebeteko epea eman daiteke 2. zereginaren eta 3.aren artean.

*OHARRA: *Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-eritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak (proposamena):

- Afrika LGTBren helburua da LGBT pertsonen kontinente honetan bizi duten errealitatea erakustea: <http://www.africagbt.org/>
- Afrika ere LGBT da: https://elpais.com/elpais/2013/05/30/africa_no_es_un_pais/1369892700_136989.html
- Kasha Jacqueline Nabagesera: <https://www.casaffrica.es/es/persona/kasha-jacqueline-nabagesera>
- Kenyako Gay eta Lesbianen Koalizioa (GALCK): <https://www.galck.org/>
- Zanele Muholi, Hegoafrikako LGTBIQ komunitate beltzaren bizitza dokumentatzen duen

artista: https://cronicaglobal.elespanol.com/pensamiento/espejos-de-hoy/zanele-muholi-fotografa-negra-lgtbiq_568935_102.html
— <https://www.casaffrica.es/es/persona/zanele-muholi>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko go-goeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. Jarduera:



Izenburua: Emakumeak Afrikaren historian

Kategoria: SUSTRAIRA

Aurkezpena:

Jarduera honen bidez, hainbat arlotan nabarmendu diren emakume afrikarrak ezagutuko ditugu: politika, kolonizazioaren aurkako diplomazia eta erresistentzia, emakumeen eskubideen defentsa eta ingurumenaren babesa.

Helburu didaktikoak:

1. Emakumeek, bakarka nahiz taldean, Afrikaren Historian izandako zereginean sakondu.
2. Afrikako emakumeek historian egin dituzten ekarpenak agerian jarriko dituzten askotariko informazio-iturriak kontsultatu.
3. Jarrera kritikoa beren herrialdeetako eta Afrikako historian paper garrantzitsua izan duten emakume afrikarrei buruz transmititu diren estereotipoen buru

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko

- gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Balio etikoak.

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrikako emakumeek beren gizar-teetako borroka sozial eta politikoetan duten eraginak eta parte-hartzeak tradizio luzea dauka, askotan isilarazia.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Emakumeen zerrenda hau Afrikako emakumeek Afrikaren eta gizateriaren historiari egindako ekarpenaren adibide bat besterik ez da.
- Estereotipatutako diskurtsoak, emakumeen gutxiespena eta diskriminazioa dakarten aurreiritziak eta rolak dituztenak, identifikatu Ikasgelan.

Garapena:

Ikasleak 6 taldetan banatuko dira. Afrikaren historiako emakume garrantzitsuen zerrenda batetik abiatuta, ikasleak haiek ikertuko dituzte. Zerrendako emakume bakoitzari buruzko informazioa duten 3 txartel

egingo dira. Talde bakoitzak behar bezala lotu behar ditu emakume bakoitzari dagozkion hiru fitxak.

1. ZEREGINA: 6 ikasle talde osatuko dira. Talde bakoitzari Afrikaren historiako protagonista izandako figura hauetako bana esleituko zaio:

1. TALDEA: Fatima Al-Fihri

2. TALDEA: Hatshepsut

3. TALDEA: Taytu Betul

4. TALDEA: Njinga Mbandi

5. TALDEA: Yaa Asantewaa

6. TALDEA: Amina de Zaria edo Aminatu

2. ZEREGINA: Osatu ondoren, talde bakoitzak dagokion pertsonaiari buruz ikertuko du.

Erantsitako fitxa emango zaie, eta, hartan, bi lauki daude:

1. Lehenengo laukian pertsonaia historikoaren **izena eta argazkia** jarri beharko dituzte.
2. Bigarren laukian, **biografiako** datu nagusiak.

Ondoren, informazio-iturria hautatu beharko dute. Pertsonaiaren informazio garrantzitsua identifikatuta eta prozesatuta dutenean, laburbildu eta erantsitako fitxan idatziko dute.

3. ZEREGINA: Sei taldeek beren fitxa osatutakoan, gainerako taldeekin partekatuko dute. Ikaskideei erakutsi diezaiekete, edo gelako horma-irudian jar dezakete denbora batez.

4. ZEREGINA: Azkenik, “nor da nor” jolasean arituko dira, eta bi aukera daude:

1. AUKERA:

Irakasleak taldeek egindako fitxa guztiak bildu eta laukiak moztuko ditu:

alde batetik, argazki guztiak eta izenak, eta, bestetik, zerrendako sei emakume afrikarren datu biografikoak.

Ondoren, jolasa hasiko da. Boluntario batek fitxetako bat hartuko du, eta gainerako ikasleek galderak egin beharko dituzte, pertsonaiaren fitxa duen pertsonak “bai” edo “ez” erantzun dezan, besterik gabe. Adibidez: “erregina naiz?”, “gerraria naiz?”, eta abar.

Pertsonaia nor den asmatzen duen pertsona izango da fitxa hartzen hurrengoa.

2. AUKERA:

Bigarren aukera honetan, ikasleek elkarren aurka jolastuko dute. 6 ikasleko taldeak osatuko dira, eta biribilean jarriko dira, pertsona guztiek elkar ikus dezaten.

Ikasle bakoitzak bere bekokian ikusgai izango du sei emakumeetako baten argazkia eta izena dituen txartela.

Txandaka, ikasle bakoitzak bere pertsonaiari buruzko galdera bat egingo die gainerako ikaskideei, adibidez: “enperatriza naiz?”, bekokian zein pertsonaia daraman asmatzen duten arte.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** 30 minutu.
- **2. zeregina:** ordubete (saio bat). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete, eta astebeteko epea eman daiteke 2. zeregina entregatzeko.
- **3. zeregina:** ordubete (saio 1).

*OHARRA: *Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak (proposamena):

- UNESCOk “Emakumeak Afrikako historian” aurkezten du: garapenaren aldeko borrokaren protagonista diren emakumeen historia kontatzen duen ikaskuntza-tresna: <https://en.unesco.org/womeninafrica/>
- Emakume Afrikarrak Historian: http://www.ikuska.com/Africa/Etnologia/mujer_historia.htm#cientos

- Afrikako erreginak eta emakume heroiak, historiako emakume ahaztuak: <https://elasombrario.publico.es/reinas-heroínas-africa-mujeres-olvidadas-historia/>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat ireki-ko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. ERANSKINA: Afrikaren historiako emakumeen fitxa

IZENA ETA ARGAZKIA

Idatzi pertsonaia historikoaren izen osoa eta itsatsi pertsonaia historikoaren argazki bat.

BIOGRAFIA

1. **Jaiotze data eta lekua:**
2. **Zein herrialdetan bizi izan zen:**
3. **Zein garaitan bizi izan zen:** haren garaiari buruzko datu garrantzitsuak.
4. **Zehaztu zergatik izan zen pertsona garrantzitsua:** pertsonaia ulertzeko, bere garaia testuinguruan kokatzeaz gain, haren ekintzak aztertu behar dituzu, eta haren motibazioei buruz galdetu, hala nola: zer legatu utzi zuen?, ideia berriren bat eman zion munduari?, lan handia egin zuen?, bere garaian aitortza jaso zuen?, historiara estereotipo diskriminatzaile batzuekin pasatu da?, eta abar.
5. **Baloratu kritikoki pertsonaia:** iruzkin subjektibo bat egin behar da, adieraziz pertsonaia historikoari buruzko gure ondorio eta iritzi pertsonalak.

1. Jarduera:



Izenburua: Kolonizazioaren aztarnak

Kategoria: SUSTRAIRA

Aurkezpena:

Jarduera honetan, Remei Sipi Mayo ekuatoreginear emakumeari egindako elkarrizketa bat ikusi ahal izango da; feminismo militantearen arloko kultura-ekintzailea da, idazlea, saiakeragilea eta E'Waiso Ipola elkartearen sorreraren sustatzailea. Elkarre horrek Afrikatik, oro har, eta Ekuatore Gineatik, bereziki, datozen emakumeak hartzen ditu. Elkarrizketa honetan, berak Espainiak kolonizatutako Ekuatore Ginean izandako esperientzia kontatzen du.

Helburu didaktikoak:

1. Ekuatore Ginean espainiar kolonizazioa dela eta bizi izandako errealitatea ezagutu.
2. Remei Sipi Mayo idazle ginearra erreferente gisa ezagutu; emakumezkoen ahotsa jartzen die, eta horiek bere ingurune osoaren bizi-raupenerako estrategia-sortzaile nagusi gisa deskribatzen ditu, bai maila ekonomikoan, bai sozialean, eta baztertuak edo desplazatuak izan diren espazioetan.
3. Emakume afrikarrek historian zehar eta, batez ere, kolonizazioaren ondorioz bizi behar izan

dituzten jarrera arrazista eta xenofoboei buruz sentsibilizatu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Beste errealitate batzuk ezagutzearen garrantzia, begiradak, ezagutzak eta pentsamenduak zabaltzeko.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Ikasgelan ikasle arrazializaturik baldin bada, erreparatu haren erreakzioei.
- Gelan gerta daitezkeen esaldi eta jarrera arrazistak atzeman eta zuzendu.

Garapena:

Ikasleei fitxa bat banatuko zaie (1. eranskina), "Kolonizazio espainiarren aztarna Ekuatore Gineako emakumeengan" bideoarekin lotutako galderak dauzkana. Galdera horiei banaka erantzun behar diete, bideoa ikasgelan

proiektatzen den bitartean, eta, ondoren, hark deskribatzen duenari buruz eztabaidatuko da.

Aurreikusitako iraupena:

- 1,5 ordu

*OHARRA: *Hemen ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakas-kuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

- Bideoa: “Kolonizazio espainiarren aztarna Ekuatore Gineako

emakumeengan”. Remei Sipi Mayori elkarrizketa: <https://www.youtube.com/watch?v=Xbgv2KS3-k4>

- Fitxa galderekin (1. eranskina)

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko go-goeta kolektiborako espazio bat ireki-ko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. ERANSKINA: Fitxa bideoari buruzko galderekin

1. Uste duzue migrazio-prozesua berdina dela gizonezkoen kasuetan eta emakumeen kasuetan?
2. Zuen ustez, zer esan nahi du *“arreta emakumeei emateaz”* ari denean?
3. *“Emakumeak beti gaude atzealdean”*. Zer deritzozue esaldi horri? Zergatik hitz egiten du ikusezintasunaz?
4. Zuen ustez, zer tratatu jasotzen zuten ikastetxean pertsona arrazializatuak izateagatik? Gaur egun historia asko aldatu dela uste duzue, edo oraindik badago tratatu diskriminatzaileak?
5. Zuen ustez, erlijioa ere diskriminazio-arrazoia izan daiteke?
6. Zer iruditzen zaizue gizon zuri kolonoek Ekuatore Gineako emakumeekin izandako umeak alabatzen edo semetzat ez ezagutzea?
7. *“Ahal duenaren egora, bera baino gutxiago dela uste duenaren aurrean”*. Zer deritzozue kolonialismoaren logika horri?
8. Bubi tradizioan matriarkatua da nagusi. Zer iruditzen zaizue hori espazio pribatuan baino ez gertatzea, baina espazio publikoan patriarkatua gailentzea?
9. Bazenekiten Ekuatore Ginea hain konektatuta zegoela Espainiarekin?
10. Ikusten duzue gaur egun antzekotasunik Remei Sipi Mayok kontatzen duenaren eta gure errealitatearen artean?

Actividad 1:



Título: Movimientos juveniles africanos de lucha contra el cambio climático

Categoría: A LA RAÍZ

Presentación:

En África existe un amplio movimiento juvenil que está movilizándose contra el cambio climático y que están haciendo oír su voz. En esta actividad conoceremos a algunas jóvenes activistas ambientales africanas que están tomando medidas en sus comunidades y movilizando a sus pares para luchar por la justicia climática.

Objetivos didácticos:

1. Análisis de los problemas medioambientales provocados por la acción humana y cómo éstos afectan a África.
2. Seleccionar y contrastar información, de manera cooperativa, acerca de algunas de las amenazas para el medio ambiente y la vida en el planeta, tales como: la explotación descontrolada de los recursos naturales, la destrucción de hábitats, la contaminación química e industrial, el cambio climático, la desertificación, etc.
3. Conocer y analizar los principales conflictos sociales y políticos del mundo actual generados por el

cambio climático.

4. Conocer la contribución de mujeres activistas ambientales africanas.

Competencias básicas transversales:

1. Competencia para la comunicación verbal, no verbal y digital.
2. Competencia para aprender a aprender y a pensar.
3. Competencia para convivir.
4. Competencia para la iniciativa y espíritu emprendedor.
5. Competencia para aprender a ser.

Asignaturas y Competencias básicas disciplinares:

1. **Geografía e Historia** (Competencia social y cívica)
2. **Valores Éticos** (Competencia social y cívica)
3. **Educación plástica, visual y audiovisual** (Competencia artística)

Mensajes clave que se quieren transmitir con la actividad:

- El éxito de las acciones de mitigación de los efectos del cambio climático necesita superar las disparidades entre países y **abordarse como un problema global**.
- El cambio climático es un problema global, pero es **el continente africano y las personas que viven en él las que más sufren y sufrirán en el futuro próximo las consecuencias del cambio climático** y el deterioro medioambiental, a pesar de ser las que menos contribuyen al mismo.
- Las profundas consecuencias del

cambio climático llevan a la humanidad a **cambiar el modelo de desarrollo predominante hasta ahora hacia un desarrollo basado en la naturaleza.**

Aspecto clave que tomar en cuenta en el aula - “aviso a navegantes”:

- Favorecer y fomentar, dentro del aula, herramientas que faciliten el empoderamiento del alumnado, que facilite un activismo juvenil para fortalecer el sentido de pertenencia a una comunidad internacional que comparte las mismas inquietudes y preocupaciones.

Desarrollo:

Greta Thunberg es la joven activista climática más conocida, sin embargo, hay muchas/muchos jóvenes activistas que, en distintas partes del mundo, y en África en particular, están haciendo frente a la actual crisis climática. A través de esta actividad, conoceremos a 5 de las activistas ambientales que están marcando la diferencia en África y en todo el mundo.

TAREA 1: Se formarán 5 grupos de alumnos y alumnas. Los grupos pueden formarse según los criterios que el profesorado estime conveniente, incluso dejar al alumnado decidir su configuración. A cada grupo se le asignará una de las siguientes activistas climáticas africanas:

GRUPO 1: Vanessa Nakate (Uganda)

GRUPO 2: Hilda Flavia Nakabuye (Uganda)

GRUPO 3: Fatou Jeng (Gambia)

GRUPO 4: Ayakha Melithafa (Sudáfrica)

GRUPO 5: Adenike Oladosu (Nigeria)

TAREA 2: Una vez estén formados los grupos, cada grupo comenzará a investigar sobre la activista climática asignada.

A continuación, tendrán que seleccionar las fuentes de información que les proporcionen los siguientes datos:

- El nombre y la fotografía de la activista.
- Los principales datos de su biografía.
- Sus principales “hitos” como activista:
- Objetivo de su lucha activista.
- Problemas que denuncia.
- Actividades que ha impulsado.
- Frases o lemas más significativos de su lucha como activista.
- Cualquier otra información que se considere relevante.

Cuando los grupos hayan identificado y procesado la información relevante, la sintetizarán y la mostrarán en un **producto final** que cada grupo tendrá que mostrar de manera colectiva.

El profesorado y alumnado decidirán el método plástico y visual a través del cual prefieren exponer los trabajos. Por ejemplo, **elaborar un mural creativo** utilizando diferentes técnicas (lapbooks, collage, etc.) a través de dinámicas colaborativas.

TAREA 3: Presentación del producto final: Cada grupo presentará su trabajo en clase, o ante público externo al aula, como estudiantes de otro nivel educativo, familias, etc.

Duración prevista:

- **Tarea 1:** 2 horas (2 sesiones).
- **Tarea 2:** 2 horas (2 sesiones). Si es necesario, los grupos pueden trabajar fuera de horario escolar.
- **Tarea 3:** 1 hora (1 sesión). Puede darse una semana de plazo entre la Tarea 2 y 3.

NOTA: El tiempo establecido es orientativo. Se recomienda ir adaptándolo en función de los ritmos de aprendizaje del alumnado, la flexibilidad institucional, los tiempos docentes, etc.

Materiales de apoyo:

- Unidos por el clima: cuatro eco héroes y uno que no lo es, pero hace todo lo que puede. El País Semanal: <https://elpais.com/eps/2021-10-30/unidos-contra-la-emergencia-climatica.html>
- Vanessa Nakate Wants Climate Justice for Africa. Revista Time: <https://time.com/6109452/vanessa-nakate-climate-justice/>

- Tres activistas ambientales que marcan la diferencia en África y en todo el mundo: <https://www.care.org/es/news-and-stories/news/three-environmental-activists-making-a-difference-in-africa-and-around-the-world/>
- Los jóvenes africanos tienen un mensaje para Europa: ayúdenos a cuidar el planeta: <https://elpais.com/planeta-futuro/2021-06-15/los-jovenes-africanos-tienen-un-mensaje-para-europa-ayudennos-a-cuidar-el-planeta.html>

Para cerrar la actividad:

Se abrirá un espacio de reflexión colectiva sobre lo sucedido durante la actividad. Os sugerimos algunas preguntas que pueden ayudar a generar la reflexión y el debate:

- ¿Qué os ha llamado más la atención?
- ¿Qué hemos aprendido?
- ¿De qué nos hemos dado cuenta?
- ¿Cómo nos hemos sentido?

